

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

13.000 lanpostu gutxiago

2.200 langabe gehiago

Prezioek goraka jarraitzen dute


Ekonomiak hazten segitzen du

**EAEko Osasungintza: 1.226 milioi
euroko defizita**

15-EBren aldean

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATUA	2006	12 HILE LEHEN.	2005 BUK.
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (16-65 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA)					
JARDUERA TASA	%	06 I	70,4	70,7	71
" 15-EBn	%	05 II	70,9	70,4	70,8
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	06 I	1.214.500	–	1.227.500
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	06 I	984.800	–	1.006.900
ALDI BATERAKO TASA	%	06 I	30,3	35,6	31,2
" 15-EBn	%	05 II	14	13,4	–
BIZTANLERIA LANGABETUA	KOPURUA	06 I	69.100	88.800	66.900
LANGABEZI TASA	%	06 I	5,4	6,9	5,2
" 15-EBn	%	06 I	7,6	8	7,7
GAZTEEN LANGABEZI-TASA	%	06 I	13,9	–	13
" 15-EBn	%	06 I	16,8	17,1	16,7
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA	%	06 I	6,1	8,7	6,1
" 15-EBn	%	06 I	8,7	9,1	8,8
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	06 URT-API	320.598	306.213	1.003.619
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	06 URT-API	31.639	27.870	74.836
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	06 URT	45	33	526
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	06 URT	1.105	712	10.165
LAN ISTRIPUAK					
BAJADUN LANGILEAK	KOPURUA	05 URT-ABE	66.759	62.115	62.115
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	05 URT-ABE	769	731	731
ESKAINNTZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	06 URT-MAR	8,0	–0,5	1,9
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	05 URT-ABE	–0,1	5,5	5,5
BPGa EAEn	% ALD.	06 I	4,3	3,1	4,2
BPGa NAFARROAn	% ALD.	06 I	3,7	3,0	3,3
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	06 I	3,2	2,2	3,9
BPGa 15-EBn	% ALD.	06 I	2,1	1,4	1,8
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	06 API	3,9	3,5	3,7
" 15-EBn	%	06 MAR	2,1	2,0	2,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.					
Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.					
2006/05/26an eguneraturiko informazioa			103. zbk. Egoeraren Azterketa 2006ko ekaina		



Aurkibidea

SARRERA	3
GIZARTE ETA EKONOMIA	
EGOERAREN AZTERKETA	4
1. 13.000 lanpostu galdu dira hiruhilekoan	4
2. Soldatapeko 22.100 pertsona gutxiago lanean	4
3. 2.200 langabe gehiago	5
4. Sinatutako kontratuen %90,1 aldi baterako da	5
5. Enplegu-erregulazioa hazi egin da	5
6. Ekonomiak hazten segitzen du ...	5
7. Mozkinak goraka, prezioak ere goraka	6
PUNTAKO GAIAK	7
Osasuna Euskal Autonomia	
Erkidegoan	7
1. Ospitale-sektorea	7
2. Ospitalez kanpoko osasun publikoa	8
3. 15-EBko azkenak, osasuneko guztizko gastu publikoan	9

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren Azterketa honetan Hego Euskal Herriko enpleguari buruzko 2006ko lehenengo hiruhilekoko datuak eta enpleguak lehenengo hiru hilabete horietan izan duen bilakaera izango ditugu mintzagai. Era berean, enpleguaren eta ekonomiaren inguruko beste datu esanguratsu batzuk ere aztertuko ditugu.

Osasuneko gastuak izan duen murrizketaren ondorioz, sistemaren kalitatea gero eta txarragoa da, eta langileen lan-karga jasanezin bihurtzen ari da. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zerbitzu publikoak gatazkan jarraitzen du, iaz bezala. Hileko puntako gaietan, sistemaren narriaduraren gaineko datuak aurkezten dituen txostenari eta Europar Batasunarekiko defizitari erreparatuko diegu.

** Txosten hau 2006ko maiatzaren 26an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

1. 13.000 lanpostu suntsitu dira hiruhilekoan

Hego Euskal Herriko (HEH) **jarduera-tasa**, hau da, lanpostua daukan edo modu aktiboan bilatzen ari den biztanle ehunekoa, 0,6 puntu gutxitu da 2006ko lehenengo hiruhilekoan, eta %70,4an dago. Gizonezkoen tasak (%79,8) 0,7 puntuko jaitsiera izan du, eta emakumeenak, 0,4 puntukoa.

Hiruhilekoan zehar **lanean ibilitako biztanleak** 1.214.500 izan dira: 701.550 gizon eta 512.950 emakume. Hortaz, lanpostuen %57,8an gizonak aritu dira, eta %42,2an, berriz, emakumeak.

Horren arabera, *hiruhilekoan, 13.000 lanpostu suntsitu dira* (9.750, gizonen kasuan, eta 3.250, emakumeenean), eta enpleguak azken urteetan izan duen goranzko joera, beraz, eten egin da.

LANEAN ARI DEN BIZTANLERIA. 2006ko I. HIRUHIL., 2005eko IV. HIRUHIL. HEGO EUSKAL HERRIA

	2006 I. HIRU.	2005 IV. HIRU.	BILAKAERA
GIZONAK	701.550	711.300	-9.750
EMAKUMEAK	512.950	516.200	-3.250
GUZTIRA	1.214.500	1.227.500	-13.000

Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

Enplegua *sektorez sektore* aztertzean ikus daitekeenez, hiruhilekoan lanean ibilitako biztanleen %64 (778.000 pertsona) zerbitzuen sektorean aritu da; industriak 305.600 lagun enplegatu ditu, hots, %25,2; eraikuntzan, 105.200 pertsona (%8,7) ibili dira lanean, eta 25.700ek (%2,1) lehenengo sektorean jardun dute.

Hiruhilekoan izan den *bilakaerari* dagokionez, eraikuntza izan da sektore kaltetuena, 12.500 lanpostu galdu ditu eta. Industrian diharduen biztanleria 7.000 lagunetan urritu da. Lehen sektorean, aldiz, 3.600 pertsona gehiago ari dira lanean, eta zerbitzuen sektorean, beste 2.900 langile.


2. Soldatapeko 22.100 pertsona gutxiago lanean

Soldatapeko biztanleak 984.800 izan dira, 2005eko laugarren hiruhilekoan baino 22.100 gutxiago, alegia. Ildo horretan, hiruhilekoan galdu diren lanpostu guztiak soldatapeko kolektiboarenak izan dira. Izan ere, soldatapekoa ez den baina lanean dabilen biztanleriak 9.100 laguneko hazkundera izan du. Ondorioz, soldatapeko biztanleriari lanean dabilen biztanleria osoan dagokion portzentajeak 0,9 puntuko jaitsiera izan du, eta %81,1koa da orain.

Behin-behinekotasun tasa %30,3koa izan da; hau da, 10 langiletik 3, aldi baterako kontratua-rekin edo inolako kontraturik gabe ibili dira. Zehazki, soldatapeko 298.000 lagun aritu dira lanean baldintza horietan. Behin-behinekotasun tasa 0,9 puntu murriztu da aurreko ekitaldiaren amaierakoarekin konparatuta. *Enplegua sortzen denean, behin-behinekotasuna areagotu egiten da, eta enplegua suntsitzen denean, ordea, behin-behinekotasuna ere urritu egiten da. Horrek esan nahi du lanpostua duten pertsonen kopuruan gertatzen diren gorabeherak soldatapeko aldi baterako langileek jasaten dituztela.*

Gizonezkoen kasuan, behin-behinekotasun tasa %26koa izan da (2005eko laugarren hiruhilekoan baino 0,6 puntu baxuagoa), emakumeena %35,6koa (1,3 puntu baxuagoa), gazteena %71,5koa (1,3 puntu beherago) eta 25 eta 34 urte bitartekoena, %42,9koa (ehuneko hori ez da aldatu hiruhilekoan).

EAEko behin-behinekotasun tasa jaitsi bada ere, *15-EBkoa* (%14koa, 2005eko bigarren hiruhilekoan) *HEHkoaren erdiaren azpitik dago oraindik ere*, batez ere, emakumeen kasuan (15-EBn, %14,7koa da emakumeen behin-behinekotasuna), baina gizonei dagokienez ere bai (%13,4koa 15-EBn).



3. 2.200 langabe gehiago

Hiruhilekoan, **langabeak** 69.100 izan dira: 35.800 gizon (langabe guztien %51,8) eta 33.300 emakume (%48,2).

Langabeziak 2.200 laguneko hazkundera izan du hiruhilekoan. Bilakaera hori generoaren arabera nola banatu den begiratuta, igoera gizonen jasan dutela ikusten dugu, emakume langabeen kopuruak 200eko jaitziera izan du eta.

LANGABEAK. 2006ko I. HIRUHIL., 2005eko IV. HIRUHIL. HEGO EUSKAL HERRIA

	2006 I. HIRU.	2005 IV. HIRU.	BILAKAERA
GIZONAK	35.800	33.400	2.400
EMAKUMEAK	33.300	33.500	-200
GUZTIRA	69.100	66.900	2.200

Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

Dokumentu honen hasieran esan bezala, jarduera-tasa jaitzi egin da hiruhilekoan zehar, eta horrekin bat, lanean dabiltzan pertsonen kopuruak 10.700eko murrizketa izan du. Gogoan hartu behar dugu jarduera-tasa bere horretan geratu edo igo egin balitz, hiruhilekoko langabeen kopurua handiagoa izango zela.

2005eko ekitaldiaren amaiairekin konparatuta 0,2 puntu igo ondoren, **langabezia-tasa** %5,4an geratu da, 15-EBkoa (%7,6) baino 2,2 puntu beherago. *Gizonen* langabezia-tasa 0,4 puntu gorago dago, %4,9an, Europakoa (%6,8) baino 1,9 puntu beherago, hain zuzen. *Emakumeen* langabezia-tasa, ordea, ez da aldatu hiruhilekoan eta %6,1ean dago, hau da, 15-EBkotik (%8,7) 2,9 puntu beherago. *Gazteen* langabezia-tasa %13,9koa izan da, hau da, 2005aren amaierakoa baino 0,9 puntu altuagoa eta 15-EBkoa (%16,8) baino 2,9 puntu baxuagoa. *25 eta 34 urte* bitartekoen langabezi tasa %7,7koa izan da, 2005eko laugarren hiruhilekoko baino 0,1 puntu altuagoa.

4. Sinatutako kontratuen %90,1 aldi baterakoa da

Urtarriletik apirilera bitarte, 320.598 **lan-kontratu sinatu** dira HEHn, 2005eko aldi berean (orduan, 306.213 kontratu sinatu ziren) baino 14.385 gehiago, hain zuzen ere.

Kontratu horietatik, **mugagabeak** 31.639 izan ziren bakarrik, alegia, 2005ean baino 3.769 gehiago. Hortaz, kontratu guztien **%9,9** baino ez da mugagabea izan. Datu horrek argi uzten du kontratazioan dagoen iruzur handia.

5. Enplegu-erregulazioa hazi egin da


2006ko urtarrilean, enplegu-erregulaziorako 45 fitxa onartu ziren, hau da, 2005eko urtarrilean baino 12 gehiago. Fitxa horiek 1.105 langilerengan izan zuten eragina, hots, 2005eko urtarriekoek baino 393 langile gehiagorengan. Beraz, enplegu-erregulazioak jo dituen enpresak zein biztanleak **gehiago izan dira**, 2005eko urtarrieko aldean.

6. Ekonomiak hazten segitzen du

EAEko Produkzio Industrialaren Indizea %8 hazi da urtarrietik martxora bitarte. Garrantziko hazkundetzat har dezakegu hori, batez ere 2005eko aldi berean %0,5 murriztu zela kontuan hartuta. 2005eko urtarrietik abendura, **Nafarroako Jarduera Industrialaren Indizea** %0,1 jaitzi zen, aurreko ekitaldiarekin konparatuta. Horrek iazko indizearekiko atzerakada egon dela adierazten du, 2005ean %5,5 hazi zen eta.

Barne Produktu Gordinari (BPG) buruzko zenbakiek herri jakin batean sortzen den aberastasunaren berri ematen dute. Kopuruon azterketak ekonomiaren bilakaera onaren fede ematen du. Ondorengo grafikoak BPGak 2004ko eta 2005eko hiruhilekoetan zehar eta 2006ko lehenengoan izan duen bilakaera erakusten du: *EAEko* BPGa, 2006ko lehenengo hiruhilekoan, %4,3 hazi zen, *Nafarroakoa* %3,7, *Espainiako Estatukoa* %3,2 eta *15-EBkoa* %2,1.

BPGaren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK



Iturriak: Eustat, IEN, INE, Eurostat

7. Mozkinak goraka, prezioak ere goraka

Apirilean, prezioek 1,4 puntuko igoera izan dute, eta, horren eraginez, urtearteko hazkundea **%3,9an** dago.

Goranzko joera jarraitu horren eragilea petrolioaren prezioaren eboluzioa dela esaten ari dira behin eta berriz. Hala ere, landu gabeko janariak eta energiarekin loturiko produktuak kanpoan utzita ere, urtearteko gehikuntza %3koa izan da. Horrez gain, Erresuma Batuan prezioak %2,1 hazi izanak indarrik gabe uzten du aipatutako argudio hori.

Prezioen igoeraren **arrazoi** nagusia **enpresamozkinen gehikuntza** handia da. Zehazki, Espainiako Bankuak ezagutarazitako datuen arabera, finantza-enpresa ez direnen mozkin garbia 2004koa baino %26,2 handiagoa izan zen 2005ean.

Soldatak orain arte baino gehiago hazi daitezten borrokatzea beste biderik ez dago, **bestela, lan-errentek gero eta pisu handiagoa galduko dutelako aberastasunaren banaketan.**



Osasuna Euskal Autonomia Erkidegoan

Sarrera

Txosten honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) osasun publikoaren gaineko azken datu ofizialak aztertuko ditugu, ospitale-sektoreari zein ospitalez kanpokoari dagokienez (lehen mailako arreta azken horren barruan dago). Datuak 2004ko ekitaldiari buruzkoak dira, eta Euskal Estatistika Erakundeak (Eustatek) argitaratu ditu. Horrez gain, datuok bai 2003ko ekitaldiarekiko, bai azken hamarkadan –hots, 1994tik aurrera–, izan duten bilakaerari begiratu diogu.

Ospitalez kanpoko sektorea aztertzean, alde publikoa bakarrik hartuko dugu aintzat, baina ospitale-sektorearen azterketak alde publikoa eta pribatua hartzen ditu barne, Eustatek ospitale-sektoreari buruz eskaintzen duen informazioan ez baitira alde publikoa eta pribatua bereizten.

Dokumentua amaitzeko, osasun publiko osoaren testuinguruari erreparatuko diogu, eta bilakaera aztertu ez ezik, lehengo 15 kideko Europako Batasunarekin (15-EB) konparatu ere egingo dugu.

1. Ospitale-Sektorea

Ospitale-sektoreari buruzko atala puntuz puntu jorratuko dugu, jarduera ekonomikoa, giza baliabideak eta laguntza-jarduera, eta bitarteko materialak aztertu ahal izateko.

1.1. Jarduera ekonomikoa

EAEan, 1994an sortutako 100 euroko, 2,97 zuzendu ziren **ospitale-sektoreko gastura**, eta kopuru hori 2,66ra murriztu zen 2003an, eta 2,63ra 2004an. Hori dirutan adierazita, 2004an, ospitale-gastuak 2003an aberastasunean zuen pisu berari eusteko gastatu behar zirenak baino 15,3 milioi euro gutxiago gastatu zirela esan

nahi du, eta diferentzia 179,6 milioikoa da, 1994ko ekitaldiarekiko.

Inbertsioek ere **txarrera** egin dute; zehazki, 1994an, BPGaren %0,15ekoak ziren; 2003an, %0,12koak, eta 2004an %0,1ekoak. Hortaz, 2004an 2003an baino 12,7 milioi euro gutxiago erabili ziren ospitale-inbertsioetarako, aberastasun terminoetan hitz eginez, eta 1994an baino 29,8 milioi gutxiago.

Hala eta guztiz ere, ospitale-gastuaren murrizketaren arrazoi bakarra **pertsonal gastua** urritu izana da. Berez, 1994an, pertsonal gastura zuzendutako BPG portzentajea %1,97 izan zen; 2003an, %1,63ra jaitsi zen, eta 2004an, %1,6ra. Hortaz, aberastasunarekiko neurtuta, 2004an 2003an baino 17,7 milioi euro gutxiago bideratu ziren pertsonal gastura, eta 1994an baino 202 milioi gutxiago.

Pertsonal gastuak izan duen **urritzea ospitale-gastu osoak** jasan duena baino handiagoa da. Horrek esan nahi du bestelako gastu batzuk pertsonal gastuaren kontura handitu direla (baina inbertsio-gastua ez da horietako bat).

OSPITALE-SEKTOREA. ALDAGAI EKONOMIKOAK. 1994-2004

	1994 (BPG %)	2003 (BPG %)	2004 (BPG %)	94-04 DIF. (Milioi €)	03-04 DIF. (Milioi €)
Gutzizko gastua	2,97	2,66	2,63	-179,6	-15,3
Inbertsioa	0,15	0,12	0,10	-29,8	-12,7
Pertsonal gastua	1,97	1,63	1,60	-202,0	-17,7

Iturria: Eustat

Finean, 2004an, azken hamarkadan bezala, eutsi egin zaio ospitale-gastua aberastasunari buruz murrizteko joerari, bai gutzizko gastuari, bai inbertsio eta pertsonal gastuei dagokienez.

1.2. Giza baliabideak eta laguntza-jarduera

Hurrengo taulak erakusten duenez, **langileen kopurua laguntza-jarduera** baino **askoz gutxiago** hazi da.

Ospitale-sektorean, zehazki, 20.037 lagunek egiten zuten lan 2004an, 2003an (19.887 langile) baino %0,8 gehiago eta 1994an (18.957 pertsonako plantilla) baino %5,7 gehiago.

Bestalde, **jarduerak** hazkunde bizia izan dute; hona hemen:

- *Ospitaleratze* kopurua %1,9 handitu da 2003koaren aldean, eta %19,9, 1994koarekiko.
- *Kanpo-kontsultak* 2003koak baino %3,4 gehiago eta 1994koak baino %34,4 gehiago izan dira.
- *Larrialdiak* %0,8 ugaritu dira 2003koekin konparatuta, eta %43,7, 1994koekiko.
- *Ebaketetan*, %2,4ko igoera egon da 2003ko kopuruaren aldean, eta %32,5koa 1994koarekin erkatuta.
- *Erditzeak* 2003an baino %3,1 gehiago izan dira, eta 1994an baino %25,4 ugariago.

OSPITALE-SEKTOREA. LANGILEAK ETA LAGUNTZA ALDAGAI. 1994-2004

	1994 (Kopurua)	2003 (Kopurua)	2004 (Kopurua)	94-04 DIF. Aldak. %	03-04 DIF. Aldak. %
Langileak, guztira	18.957	19.887	20.037	5,7	0,8
Ospitaleratzeak	236.539	278.195	283.576	19,9	1,9
Kanpo-kontsultak	1.632.551	2.122.406	2.194.214	34,4	3,4
Larrialdiak	732.007	1.043.230	1.052.006	43,7	0,8
Ebaketak	165.390	214.028	219.165	32,5	2,4
Erditzeak	15.777	19.191	19.789	25,4	3,1

Iturria: Eustat

2004an, azken hamarkadako joerari eutsiz, laguntza-jarduera nabarmenki hazi delarik ere, ospitaleetan diharduten langileen hazkundera askoz txikiagoa izan da.

1.3. Bitarteko-materialak

Logikak agintzen duenez, ospitale-sektoreko gastuaren murrizketaren eraginez, **bitarteko materialek okerrera** egin dute.

2003an bezala 2004an ere, ospitale-sektoreak 44 **ospitale** zituen. 1994an, EAEn, 51 ospitale zeudela kontuan hartuta, 7 **gutxiago** dira 10 urte horien buruan dauden ospitaleak.

Era berean, 2004an, 3,8 **ohe** zeuden EAeko 1.000 biztanleko, hau da, 2003ko kopuru bera, baina 1994an baino 0,4 ohe **gutxiago**, 1994ko ekitaldian 4,2 ohe baitzeuden 1.000 biztanleko.

Atzerakada horrek badu garrantzia, *Europako* batez bestekotik *urrunago* jartzen gaituelako. Zehatzera joaz, 2002an, 15-EBn 6,1 ohe zeuden 1.000 biztanleko, EAEn (orduan 3,9 ziren) baino 2,2 gehiago, alegia.

Ondorioz, ospitaleko **batez besteko egonaldia** 2004an 8,6 egunekoa izanik, 0,1 **murriztu** da 2003koarekin konparatuta (2003an, 8,7 eguneko batez besteko egonaldia), eta 1994koa (10,8 eguneko batez besteko egonaldia) baino 2,2 egun laburragoa da.

OSPITALE-SEKTOREA. MATERIALAK ETA KALITATEA ALDAGAI. 1994-2004

	1994 (Kopurua)	2003 (Kopurua)	2004 (Kopurua)	94-04 DIF. (Kopurua)	03-04 DIF. (Kopurua)
Ospitale kopurua	51	44	44	-7	0
Oheak/1.000 bizt.	4,2	3,8	3,8	-0,4	0
Batez besteko egon.	10,8	8,7	8,6	-2,2	-0,1


Iturria: Eustat

2. Ospitalez kanpoko osasun publikoa

Ospitale-sektorean egin dugun bezala ospitalez kanpoko publikoan ere, jarduera ekonomikoa, giza baliabideak eta laguntza-jarduera, eta bitarteko materialak aztertuko ditugu.

2.1. Jarduera ekonomikoa

Ospitalez kanpoko sektoreko **gastura** zuzentzen den BPG ehunekoak 2004an ere izan du **murrizketa**, azken hamarkadako joerarekin jarraituz. 1994ko gastua BPGaren %0,86koa zen, 2003an %0,68ra jaitsi zen, eta 2004an, %0,66ra. Era horretan, 2004an, 2003an baino 5,9 milioi euro gutxiago gastatu ziren ospitalez kanpoko sektore publikoan, eta 105,6 gutxiago –aberastasunaren arabera– 1994an baino.



Kasu horretan ere, guztizko gastuaren jaitsiera **pertsonal gastua urritzearen** ondorioa da, 1994an gastu hori BPGaren %0,74koa izatetik %0,56ra jaitsi baitzen 2003an, eta %0,55era 2004an. Horren arabera, 2004an, aberastasunean oinarrituta, 2003an baino 8,8 milioi euro guxtiago joan ziren pertsonal gastura, eta 1994an baino 103,4 milioi guxtiago.

OSPITALEZ KANPOKO OSASUN PUBLIKOA. ALDAGAI EKONOMIKOAK. 1994-2004 (*)

	1994 (BPG %)	2003 (BPG %)	2004 (BPG %)	94-04 DIF. (Milioi €)	03-04 DIF. (Milioi €)
Guztizko gastua	0,863	0,676	0,665	-105,6	-5,9
Pertsonal gastua	0,741	0,563	0,547	-103,4	-8,8

Iturria: Eustat

(*) Taula horretako ehunekoak hiru hamartar dituzte, nahiko kopuru txikiak direnez, hamartarrek garrantzi handiagoa dutelako.

2.2. Giza baliabideak eta laguntza-jarduera

Hurrengo taulan ikusten denez, **langile-gehikuntza kontsulten** kopuruaren hazkundera baino askoz **txikiagoa** izan da ospitale kanpoko sektorean ere, bai 2004an, bai azken hamarkada osoan.

Datu zehatzen bidez adierazteko, ospitale kanpoko sektoreko **langileak** 6.671 ziren 1994an, 6.966 2003an eta 7.036 2004an; horrek esan nahi du 2004an langile kopurua %1 hazi zela 2003koaren aldean, eta %5,5 1994koarekin konparatuta.

Bestalde, 2004an, 12,9 milioi **kontsulta** egin ziren, hots, 2003an (12,6 milioi kontsulta) baino %2,2 gehiago, eta 1994ko kopurua (11,7 milioi kontsulta) %9,8an gaindituz.

Mediku bakoitzak egindako kontsulten kopurua hazi egin da; zehazki, 2004an, **mediku bakoitzak** 4.774 **kontsulta** egin zituen, 2003an (4.736 kontsulta) baino 38 gehiago eta 1994an (4.739 kontsulta) baino 35 gehiago.

OSPITALEZ KANPOKO OSASUN PUBLIKOA. LANGILEAK ETA LAGUNTZA ALDAGAI. 1994-2004

	1994 (Kopurua)	2003 (Kopurua)	2004 (Kopurua)	94-04 DIF. Aldak. %	03-04 DIF. Aldak. %
Langileak	6.671	6.966	7.036	5,5	1,0
Kontsultak, guztira (milioitan)	11,7	12,6	12,9	9,8	2,2
	(Kopurua)	(Kopurua)	(Kopurua)	(Kopurua)	(Kopurua)
Kontsultak/Medikuko	4.739	4.736	4.774	35	38

Iturria: Eustat

2.3. Bitarteko materialak

Ospitale kanpoko sektorean, 443 zentro zeuden 2004an, hau da, 2003an (440 zentro) baino 3 gehiago, baina 1994an (452 zentro) baino 9 guxtiago.

OSPITALEZ KANPOKO PUBLIKOA. ALDAGAI MATERIALAK. 1994-2004

	1994 (Kopurua)	2003 (Kopurua)	2004 (Kopurua)	94-04 DIF. Aldak. %	03-04 DIF. Aldak. %
Zentroak, guztira	452	440	443	-9	3

Iturria: Eustat

3. 15-EBko azkenak, osasuneko guztizko gastu publikoan


Atal honetan, 15-EBko estatuak eta Eusko Jaurlaritzak (EJK) 2003an (Europari buruz daukagun azken informazioa urte horretakoa da eta) osasuneko gastu publikora bideratu zituzten BPG ehunekoak konparatuko ditugu.

EAE, BPGaren %4,4koa izan zen osasuneko gastu publikoa. Horrek 15-EBko azken tokian kokatzen du EAE, eta hurrengoa, amaieratik hasita, Nafarroa da, BPGaren %4,7 gastatu baitzuen osasunean. 15-EBri buruz daukagun informazioa dagokien 14 estatu kideetatik guzti-guztiek zuzendu zuten osasuneko gastu publikora EAEk eta Nafarroak baino aberastasun portzentaje handiagoa, 15-EBko batez besteko ez-haztatua (estatu kide bakoitzaren pisu ekonomikoa aintzat hartzen ez duen batez bestekoa) BPGaren %6,4koa zelarik. Horren arabere

ra, 2003an, EAEn, 15-EBko BPG ehuneko bera gastatu balitz, **gastatutakoak baino 991,4 milioi euro gehiago zuzendu beharko ziren osasun publikora.**

Kopuru horiek gaurkotuz gero, **2006an**, osasuneko gastu publikorako aurreikusitakoa **baino 1.226,4 milioi euro gehiago** gastatu beharko genituzke, aberastasunaren arabera kalkulatu-ta, 15-EBn egiten den ahaleginarekin pareka-tzeko.

OSASUNeko GASTU PUBLIKOa (BPG %). 15-EB, 2003



Iturriak: OCDE, Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra